

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Kontsumitzaile printzipalak gurasoak izango dira eta haurrak ere (baina ez zuzen edo aktiboki). Pixoihal berrerabilgarrien erabilera handitzen ari da hainbat arrazoiengatik.

Pixoihal berrerabilgarrien bezero nagusia haurrak dituzten familiek osatzen dute, zehazki gurasoek edo zaintzaileek, batez ere haurraren bizitzako lehen urteetan, fardel aldaketak ohikoenak direnean.

Hala ere, gaur egun bezeroa haratago doa, eta honako hauek ere izan daitezke:

- Haurrentzat produktu ekologikoak saltzen dituzten dendak edo webguneak.
- Hartzaindegia edo haur-eskolak, zero hondakinen politika sustatzen badute.
- Osasun-profesionalak, pediatria adibidez.

Lehenik, gurasoek dirua aurrezten dute, hasierako inbertsioa handia izan arren epe luzera askoz merkeagoak direlako pixoihall botagarriekin alderatuta. Bigarrenik, gero eta kontzientzia handiagoa dago ingurumenaren alde, eta gurasoek murriztu nahi dute pixoihal botagarriek sortzen duten zabor kantitate handia, horregatik, oihalezkoak aukera jasangarriagoa dira. Gainera, pixoihal berrerabilgarriak oihal naturalekin egiten dira, hala nola kotoi ekologikoarekin, eta horrek haurarentzat osasuntsuagoak eta leunagoak egiten ditu. Azkenik, gaur egungo diseinu modernoei esker, pixoihal hauek erabiltzeko errazak dira eta itxuraz pixoihal botagarrien antzekoak, eta horrek guraso askorentzat erakargarri bihurtzen ditu.